



## **DEKRETUA**

### **2022ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik tasa ordaintzeko epea luzatzea**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 25. artikuluan, "Egutegi fiskala" izenburupean, aldiaren behin ordaindu beharreko diru-sarreraren epea zehazten dira.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa ordaintzeko epea apirilaren 20tik ekainaren 30era artekoa da.

Udal gobernua aparteko aurrekontu bat aurkeztu du gaur, familiei eta enpresei krisi energetikoari aurre egiten laguntzeko.

Pertsonei, familiei, enpresei eta negozioei laguntzeko lehen ekintza gisa, berehalako eragina izango duen neurri fiskal bat iragarri da, autonomoek, ETEk eta familiek likidezia izan dezaten: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa ordaintzeko epea 2022ko urriaren 30era arte luzatzea. Horri esker, "familia eta enpresek 52 milioi euroko likidezia izango dute lehentasuneko beharrei erantzuteko.

Urriaren ordaintzeko azken egun baliaduna 28 da.

Beraz, urriaren 28ra arte luzatzen da Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa ordaintzeko aldia.

Erabaki horren ildotik, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa epeka ordaintzea — ordenantza orokorraren 70.7 artikuluan aurreikusitako aukera— kobrantza-aldi berrira moldatuko da.

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 25.2. artikuluan adierazten duenez, artikuluan lehen puntuan adierazitako ordaintze-aldien aldaketak alkatearen dekretuz onetsiko dira.

Alkate lehendakariak, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorra (25. art.) eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak — Tokiko gobernua modernizatzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, hauxe:



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## **EBATZI DU:**

Diru-sarrera batzuk ordaintzeko 2022ko egutegi fiskala aldatzea, ondoren xedatzen den moduan:

1.- Urriaren 28ra arte luzatzea Ondasun Higiezin gainera Zerga eta Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa ordaintzeko aldia.

2.- Ondasun Higiezin gainera Zerga eta Hondakinak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa epeka ordaintzea —ordenantza orokorraren 70.7 artikuluan aurreikusitako aukera— kobrantza-aldi berrira moldatuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 8an.

**ALKATE LEHENDAKARIA**